



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2012IPLE0007

Eguna: 2012-09-27

Ordua: 19:00-20:05

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Agin Rezola Laburu	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2012ko uztailaren 12ko akta onartzea	1	Aprobación del acta de 12 de julio de 2012
Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Zozketa informatikoa berrestea	2	Elecciones al Parlamento Vasco. Ratificación sorteo informático
Cementos Rezola enpresarekiko hirigintza-hitzarmena. Alegazioak ebaztea eta behin betiko onartzea	3	Convenio urbanístico con Cementos Rezola. Resolución de alegaciones y aprobación definitiva
Arantzazuko Ama Ikastola handitzeko	4	Aprobación del proyecto de movimiento de



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Lur mugimenduen proiektua onartzea		tierras para la ampliación de la Ikastola Arantzazuko Ama
Auzitarako botere orokorra. Dekretua berrestea	5	Poder general para pleitos. Ratificación de Decreto
2013ko herriko jaia. Dekretua berrestea	6	Día festivo local 2013. Ratificación de Decreto
Preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa	7	Moción a favor de los derechos de los presos enfermos
Informazio, galdera-erreguak	8	Información, ruegos y preguntas

Hasi baino lehen, alkateak premiazko deklarazioa egin du, EAJk aurkeztutako mozioa gai-zerrendan sartzeko, eta Osoko Bilkurako kideek aho batez onartu dute.

Esan-eginak eta erabakiak

1. **2012ko uztailaren 12ko akta onartzea**

Akta, aho batez, onartu da

1. **Aprobación del acta de 12 de julio de 2012**

El Acta es aprobada por unanimidad.

2. **Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Zozketa informatikoa berrestea**

Alkatearen 761/2012 dekretuari jarraiki, zozketa elektronikoa aho batez berretsi da, hain zuzen ere urriaren 21eko hauteskunde autonomikoetarako hauteskunde-mahaletako kideak izendatzeko garatu dena.

2. **Elecciones al Parlamento Vasco. Ratificación sorteo informático**

Conforme al decreto de alcaldía 761/2012, por unanimidad se ratifica el sorteo electrónico desarrollado para la designación de los miembros de las distintas mesas electorales para las elecciones autonómicas del 21 de octubre.

3. **Cementos Rezola enpresarekin hirigintza hitzarmena. Alegazioak ebaztea eta behin betiko onartzea**

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hauek

3. **Convenio urbanístico con Cementos Rezola. Resolución de alegaciones y aprobación definitiva**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo proponiendo



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

har daitezen proposatzen da irizpen horretan:

Lehena.- Jose Ramon Latasa Garaikoetxea jaunak aurkeztutako alegazioa oso-osorik ezestea.

Bigarrena.- Felix Elarre jaunak aurkeztutako alegazioa partzialki baiestea, Zehazki, SAK egindako txostena berresteko premiari dagokionez.

Hirugarrena.- 2012ko uztailaren 12ko Osoko Bilkuran erabakitakoa berrestea.

Laugarrena.- Akordio horren berri ematea alegazio-egileei eta Sociedad Financiera y Minera, SA (Cementos Rezola) eta Hormigones y Minas, SA merkataritza-sozietateei.

Idazkariak Osoko Bilkurako kideei zera adierazi die, erabaki hori hartzeko gehiengo absolutua behar dela, eta, Udalaren (Astigarraga Lantzen SA) aldeko 156.681€-ko aldeari dagokionez (entregatutako udal-partzelak balio handiagoa duelako sortu da alde hori), zenbateko hori ez dela udal-kutxan sartuko, ez dela ezer ere sartuko, eta Udalaren aldeko hasierako aldea konpentsatu egingo dela, zenbateko horretarako aintzat hartu delako 1992. urteaz geroztik enpresak jaso ez duen mozkina, urte hartan lizentzia ukatu zitzaiolako gaur egun arte, hori guztia espedientean jasotako txostenei jarraiki.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak hitza hartu du, eta zera adierazi du, Zakurmendegiko kokalekuaren alde daudela, baina abstenitu egingo direla, joan den legegintzaldian eremu horretan zementu-fabrika bat kokatu nahi izan zutenean proposamen hori ez zutelako babestu. Bestetik, harrituta azaldu da, Bilduko kideak AHTaren aurka egonik, desjabetzearen diru-sarrerak

la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Desestimar en su totalidad la alegación formulada por José Ramón Latasa Garaikoetxea.

Segundo.- Estimar parcialmente la alegación formulada por Félix Elarre, respecto a la necesidad de refrendar el informe realizado por Zehazki, S.A.

Tercero.- Ratificar el acuerdo plenario adoptado el 12 de julio de 2012.

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a los alegantes y a las mercantiles Sociedad Financiera y Minera, S.A. (Cementos Rezola) y Hormigones y Minas, S.A.

El Secretario informa al Pleno que la adopción del presente acuerdo requiere acuerdo de mayoría absoluta, y que en relación a la diferencia de 156.681€ a favor del Ayuntamiento (Astigarraga Lantzen SA), por mayor valor de la parcela municipal que se entrega, ese importe no se ingresará en la caja municipal, no se ingresará ningún importe y la diferencia inicial a favor del Ayuntamiento quedará compensada dado que se estima en ese importe el beneficio dejado de percibir por la empresa desde el año 1992, fecha de denegación de la licencia hasta la fecha, todo ello conforme a los informes que obra en el expediente.

Interviene el concejal Bixente Arrizabalaga quien señala que estamos con la ubicación en Zakurmendegi, pero nos vamos a abstener dado que en la pasada legislatura queríamos ubicar una cementera en esa Area y no se apoyó la propuesta. Por otro lado cuestiona que estando Bildu en contra del TAV, menciones que los ingresos de la expropiación se destinarán a la



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

urbanizaziora bideratuko direla aipatu dutelako, eta, ildo horretan, Bildukoei leporatu die AHTaren Astigarragako geltokiari eustea babestu ez izana.

urbanización, y reprocha a Bildu que no ha defendido la postura de mantener la ubicación de la estación del TAV en Astigarraga.

Bilduko alkateak zera erantzun dio, poz handiz ikusten duela geltokia Astigarragan ez kokatzea, horrek kalte handiak ekarriko lituzkeelako berekin. Zementu-fabrikei dagokienez, Bixente zinegotziari gogora ekarri dio aurreko gobernu-taldeak hiru, eta ez bat, ezartzeko asmoa zuela.

Contesta el alcalde que Bildu se alegra de que la estación no se ubique en Astigarraga por los perjuicios que ello implicaría. En relación a la cementeras recuerda al concejal Bixente que el anterior equipo de gobierno preveía ubicar no una sino 3 cementeras en Astigarraga.

Irizpena bozkatu da, eta onartu egin da, aldeko 6 botorekin (5 Bildu, 1EAJ/PNV) eta abstentzio batekin (H1).

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 6 votos a favor(5 Bildu, 1EAJ/PNV) y 1 abstención de HI.

4. Arantzazuko Ama Ikastola handitzeko lur mugimenduen proiektua onartzea

4. Aprobación del proyecto de movimiento de tierras para la ampliación de la Ikastola Arantzazuko Ama

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabaki hau har daitezen proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Arantzazuko Ama ikastola handitzeko lur mugimenduen proiektua onartzea eta 2013. urteko aurrekontuan obrak gauzatzeko 365.333,27€ko partida gaitzeko konpromezua hartzea, betiere Eusko Jaurlaritzari eskatutako dirulaguntza onartzen bada.

Aprobar el proyecto de movimiento de tierras para la ampliación de la ikastola Arantzazuko Ama y adoptar el compromiso para habilitar una partida en el presupuesto del año 2013 de importe 365.333,27€ para la ejecución de la obra en caso de que sea admitida la subvención solicitada al Gobierno Vasco.

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera galdetu du, ea zergatik orain proiektua lurrak mugitzera bideratu den eta ez jangela, ikasgelak eta abar aldatzera, aurreko legegintzaldian eskatu zuten bezala. Zergatik orain lehentasun horiek, Eusko Jaurlaritzarekin aztertu dituzte ikastolaren premiak?

La concejal Zorione Etxezarraga pregunta porque ahora el proyecto se concreta en el movimiento de tierras y no la modificación del comedor, aulas...que en la legislatura anterior reclamaban. ¿Porqué ahora estas prioridades, se ha analizado con el Gobierno Vasco las



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Zorionek adierazten du udalak ikastolaren plan estrategikoa bazuela eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zela .

Alkateak zera erantzun dio, proiektua jolastokia handitzera bideratu dela eta etorkizunari begira beste garapen-aukera batzuk aurreikusten dituztela, baina ez dutela zertan Eusko Jaurlaritzak zer esango duen zain egon ikastolak zer premia dituen jakiteko, udalerrri honetako herritarrek ongi asko dakitelako zein diren, eta ikastolari buruzko aurreikuspenak hezkuntza-batzordeari aurkeztu zizkiotela gaineratu du.

Zorionek zera adierazi du, ikastolari dagokionez dena konponduta dagoela, kalean ikus daitekeenez, baina hala eta guztiz ere salatu nahi izan du Bilduk gai hori alderdiaren mesedetan erabili zuela, aurreko hauteskundeetan ikastolako jolastokia okupatu baitzuen.

Alkateak erantzun dio hori gezurra dela, bertan ez zutelako inongo hauteskunde-ekitaldirik antolatu.

Jendarteko herritar batek hitza hartu du, eta Zorione zinegotziari leporatu dio nahikoa lotsagabea izatea, Osoko Bilkuraren bilerara galdera eta adierazpen horiekin etorri izanagatik; izan ere, gogora ekarri dionez, aurreko legegintzaldian zinegotzi horrek jakitera eman zuen lursail-erreserba bat bazegoela ikastola zabaltzeko, baina zabaltze hori bideraezintzat jo zutela, ikastolak adierazitako premiei muzin eginez.

Bixente Arrizabala zinegotziak Zorione zoriondu du, haren jarrera defendatzeko ausardia handiz jokatu duelako, eta aurreko legegintzaldian ikastolaren alde ezer ere ez zela egin esatea gezurra esatea dela esan du; izan ere, gogora ekarri duenez, 12 ikasgela zabaldu ziren, tutoretzapeko etxebizitzak lekualdatu

necesidades de la ikastola?.

Señala que el ayuntamiento tenía un plan estratégico de la ikastola que se presentó al Gobierno Vasco .

Contesta el alcalde que el proyecto lo que habilita es la ampliación del patio y prevee otras posibilidades de desarrollo a futuro, señala que no tiene que estar esperando al Gobierno Vasco para saber las necesidades de la ikastola, dado que los vecinos de este municipio las conocemos, y las previsiones sobre la ikastola se presentaron en la comisión de educación.

Zorione manifiesta que en relación a la ikastola está todo solucionado en función de lo que se percibe en la calle, no obstante manifiesta el uso partidista que hizo Bildu ocupando el patio de la ikastola en las pasadas elecciones.

Contesta el alcalde que eso es falso dado que no se desarrolló ningún acto electoral.

Interviene un vecino del público manifestando que la concejal Zorione es bastante descarada, dado que en la legislatura pasada informaba de la existencia de una reserva de terreno para la ampliación de la ikastola, que era inviable, y no atendieron a las necesidades planteadas por la ikastola., y ahora formula las preguntas y manifestaciones que hemos escuchado el el Pleno.

El concejal Bixente Arrizabala felicita a Zorione por la valentía en la defensa de sus posiciones y manifiesta que no es cierto que no se hiciera nada en la ikastola en la legislatura anterior, recuerda la ampliación de 12 gelas, el traslado de las viviendas tuteladas que posibilitó la ampliación, y el Plan Especial que se redactó para la ampliación



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

ziren zabaltzea ahalbidetzeko, eta zabaltzea aurrera eramateko Plan Berezi bat idatzi zen.

Herritar batek hitza hartu du, ikastola herritarren presioari esker zabaldu zela adierazteko.

Interviene un vecino manifestando que la ampliación de la ikastola se hizo gracias a la presión de los vecinos.

Proposamena bozkatu eta onartu egin da, aldeko 6 botorekin (5 Bildu, 1 Hamaika bat) eta EAJ/PNVren abstentzioarekin.

Sometida a votación la propuesta es aprobada con 6 votos a favor (5 Bildu, 1 H!) y 1 abstención de EAJ/PNV.)

5. Auzitarako botere orokorra. Dekretua berrestea

Osoko Bilkurari alkatearen 779/2012 dekretua jakinarazi zaio; horren bitartez, atzerabidezko akzioari dagokionez jarritako errekursoetan udala ordezkatzeko duten abokatu eta prokuradoreak izendatu dituzte.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak galdetu du zergatik aukeratu duten Joseba Belaustegi abokatu eta ez Nekane Martínez, eta defentsa zenbat kostatuko den.

Alkateak adierazi du, batetik, abokatu hori proposatu duela gaia oso ongi ezagutzen duelako, eta, bestetik, kostuaren kalkulua aurkeztu gabe dagoela.

Osoko Bilkurako kideek dekretua bozkatu dute, berresteko, eta aho batez onartu dute.

6. 2013ko herriko jaia. Dekretua berrestea

Udalaren Osoko Bilkurako kideek aho

5. Poder general para pleitos. Ratificación de Decreto

Se comunica al Pleno el decreto de alcaldía 779/2012 por el que se procede al nombramiento de abogado y procuradores que representarán al ayuntamiento en los distintos recursos interpuestos en relación a la acción de regreso.

El concejal Bixente Arrizabalaga pregunta porque se ha designado abogado a Joseba Belaustegi y no a Nekane Martínez, y cuanto va a costar la defensa.

La Alcaldía manifiesta que ha propuesto a este abogado por el conocimiento que tiene del tema y señala que todavía no se ha presentado la estimación del costo.

Se somete el decreto a la ratificación del pleno siendo aprobado por unanimidad.

6. Día festivo local 2013. Ratificación de Decreto

El Pleno del Ayuntamiento aprueba por



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

batez onartu dute 2013ko uztailaren 26a jai-egun izendatzea, 687/2012 dekretuari jarraiki.

unanimidad la designación de festivo el día 26 de julio de 2013, conforme al decreto 687/2012.

7. Preso gaixoen eskubideen aldeko mozioa

Ione Olatziregi zinegotziak Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du:

“Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu berezirik; gaixotasun hauek arreza zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeriotik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru

7. Moción a favor de los derechos de los presos enfermos

La concejal Ione Olatziregi da lectura a la moción presentada por el grupo municipal Bildu presenta la siguiente moción:

“Estamos viviendo una situación muy cruda desde el punto de vista de los derechos humanos. Las últimas semanas hemos tenido sobre la mesa la situación irreversible del estado de salud, del preso Josu Uribetxeberria. En cumplimiento de la ley, aunque tarde, el preso de Arrasate ya está en libertad condicional. A día de hoy, todavía hay presos gravemente enfermos que siguen en prisión. Trece ciudadanos concretamente. Esta situación está agravando su estado físico y aumentado la inquietud de sus familiares. Se les están negando los derechos que tienen como personas y como presos.

El tratamiento y seguimiento de las enfermedades que sufren estos trece presos, es incompatible con su mantenimiento en prisión por las siguientes razones: la cárcel no puede dar tratamiento especializado; estas enfermedades necesitan un cuidado riguroso; la falta de capacidad de dar una respuesta ante una posible urgencia estando en la cárcel; en el caso de Josu Uribetxeberria, se han reafirmado ante el Ministerio del Interior de Madrid todos estos argumentos.

Después de la puesta en libertad condicional de Josu Uribetxeberria,



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarriko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoen eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarriko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezzen:

1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernuari.

2.- Udal honek, nazioarteko eta Espainiako legedia oinarritzat hartuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraiantzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.

3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne

atendiendo a los mismos argumentos antes mencionados, hay que excarcelar a los otros trece presos que padecen enfermedades graves e incurables. Estos trece presos y sus familiares están sufriendo un castigo añadido. Negando la libertad condicional a estos presos, los responsables políticos de Madrid están quebrantando los pilares básicos de los derechos humanos.

Las normas, principios jurídicos y reivindicaciones a favor de los derechos humanos tanto internacionales como del estado español declaran la necesidad de respetar los derechos de las personas presas que tienen enfermedades graves e incurables. Estas personas tienen que recibir el tratamiento y cuidados médicos que necesiten y en las condiciones requeridas, por que es un derecho básico.

Teniendo en cuenta todo ello, presentamos estos puntos al Pleno de este Ayuntamiento apra que sean debatidos y aprobados:

1.- Este Ayuntamiento quiere expresar su preocupación ante la situación de urgencia y gravedad de los presos enfermos. Al mismo tiempo insta al gobierno de Madrid a dar pasos reales en el cumplimiento de la ley vigente de acuerdo con la voluntad de la mayoría de este pueblo.

2.- Este Ayuntamiento, teniendo en cuenta las leyes internacionales y españolas, pide la libertad condicional para estos trece presos con enfermedades graves e incurables. Para que reciban los tratamientos de salud necesarios en las condiciones convenientes y que esta situación no suponga una condena añadida para ellos y sus familiares.

3.- Este Ayuntamiento comunicará esta



Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

Ministerio eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.

Jarraian, mozioa eztabaidatu da, eta udalaldeek testua aldatzeko erabakia hartu dute, 13 presoei buruzko aipamena kenduz, eta, horren ordez, presoak jarritz.

Ñabardura hori gauzatuta mozioa aho batez onartu da, eta EAJ/PNVk aurkeztutako mozioa erretiratu da.

decisión al Ministerio de Interior y al Juez de vigilancia Penitenciaria de Madrid, así como a los medios de comunicación.

A continuación se debate la moción y los distintos grupos municipales acuerdan modificar el texto quitando la referencia de los 13 presos, y en su lugar, poner presos.

Con esta matización se aprueba la moción por unanimidad, y se retira la moción presentada por EAJ/PNV.

8. Informazio, galdera-erreguak

Zorione Etxezarraga zinegotziak zera adierazi du, atzo San Marko Mankomunitatearen Batzordea aldatu zela, eta, azken egunetan, tobera bat aldatu dutela atez atekoaren alde egiteko; hori ez zaiola etikoa iruditzen esan du.

Alkateak adierazi du Donostiako Udalak eskatuta aldatu zela tobera, eta atez atekoarekin inolako zerikusirik ez duela.

Raul zinegotziak zera erantzun du, etikoa ez dena zera dela, Mankomunitateko udalerrri guztiek, bat izan ezik, Bilduren alkatea izatea, eta, hala ere, Bildukoak San Markoren Batzordetik kanpo utzi izana.

8. Información, ruegos y preguntas

La concejal Zorione Etxezarraga señala que ayer hubo cambio de Junta en la Mancomunidad de San Marko, y que en estos últimos días se ha procedido a la modificación de una tolva para beneficiar el PaP, y cree que eso no es ético.

Señala el alcalde que la modificación en la tolva se hizo a petición del Ayuntamiento de Donostia y no tiene que ver con el PaP.

Contesta el concejal Raul que lo que no es ético es que de la totalidad de municipios de la Mancomunidad, todos menos uno tienen alcaldía de Bildu, y en cambio se les haya retirado de la Junta de San Marko.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2012ko irailaren 28an

Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria